



Hainbat berrikuntza aurten India protagonista duen Titirijain

TOLOSA ▶ Gaurtik abenduaren 5era luzatuko da 22. Txotxongilo Jaialdia Tolosan

SAIOAK ▶ 11 herrialdeko 25 konpainiak 28 ikuskizun desberdin eta 181 saio eskainiko dituzte ▶ 2



Jokin Bildarratz Tolosako alkatea eta Indiako ordezkariak atzoko aurkezpenean, Gipuzkoako Foru Aldundian, Donostian. LEIRE MONTES

LEITZA ▶

Astibia errugabea dela dio Kontseiluak

Gurasoek informazio manipulazioa salatu dute ▶ 7

TOLOSA ▶

Bihar, Santa Zezilia kontzertua Leidorren

Herriko sei musika taldek hartuko dute parte 12:00etan ▶ 3

IBARRA ▶

Merkatu Txikirako bilketa ▶ 6



Laserraren plazerra probatu

Esperientziadun adituen eskuetan jar zaitez eta zure azalaren leuntasunaz goza ezazu.

Orain Tolosan:
SHUYANA

Eskolapiotako Lorategiak, 3
20400 Tolosa • Tel.: 943.675.489

- Gizon-Emakume depilazioa •
- Aurpegi eta Gorputzekoa •
- Ileak sortutako infekzio arazoak •
- Diagnostiko informatizatua doan •
- Bakoitzari egokitutako finantziaketa •

Depitotal

TITIRIJAI 2004 ▶

Txotxongiloen harira

India protagonistatzak hartuta eta hainbat berrikuntzarekin, gaur hasiko da 22. Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia; atzo goizean aurkeztu zuten, Donostian

LEIRE MONTES

«Txotxongiloek fantasia eka-
rriko dute Tolosara. Eta fanta-
siazko mundu horrek lurralde
guztien arteko mugak hautsiko
ditu». Baieztapen eta, era bere-
an, desio horrekin aurkeztu zu-
ten atzo, Donostian, 22. Nazio-
arteko Txotxongilo Jaialdia. In-
dia protagonistatzat hartuta,
eta zenbait berrikuntzarekin,
gaur hasiko da Titirijai 2004.
Abenduaren 5a arte, hari eta
panpin artean biziko da Tolosa.

11 lurraldetako 25 konpainia
ariko dira jaialdian. India da
Tolosako Ekinbide Etxekoen
(TEE) apustua aurtun: lau talde-
dek saio bana eskainiko dute,
eta Pitara Putli konpainiak egu-
nero Beotibarren eskainiko
duen emanaldiak piztu du
ikusmin handien.

Baina gertukoari ere garran-
tzia eman nahi diote antolatzaile-
leek: Euskal Herriko lau talde-
deko hartuko dute parte, eta eskual-
deko ordezkariak ere izango
da: Adunako Asvinenea zen-
troa; lan bat estreinatuko du,



Arretxe, Kumar, Singh, Bildarratz, Lopez de Landeje, Larraza eta Almandoz, atzo, Donostian. LEIRE MONTES

gainera. Herbehereek ere or-
dezkarri bat izango dute, lehen-
dabizikoz. Tolosan bertan 28
emanaldi izango dira ikusgai,
baina Gipuzkoako, Bizkaiko eta
Nafarroako zenbait herritan
emango dituztenak kontuan
hartuta, 181 ikuskizun izango
dira guztira.

P.K. Singh Indiako Espainian
duen enbaxadorearen esane-
tan, «aparteko kultur topake-
ta» izango da Titirijai guztion-

tzat: «Indiako hiru lurralde
izango dira Tolosan, hiru hiz-
kuntza desberdin hitz egiten
dituzten 50 lagunetik gora...
Gure lurraldeko ohitura, kultur
eta ezaugarri anitzen erakus-
leho izango da».

Miguel Arretxe TEE-ko zu-
zendarikideren iritiz, Aranbu-
ru Jauregiko erakusketa bera
ere *Indiara leihoa* izango da:
«Indiaren aberastasunaren
irudi fidela eta anitza izan nahi

du. Ez da sekula horrelako era-
kusketarik egin; ohore handia
da». Indiako hainbat eskualde-
tako 300 txotxongilo eta musi-
ka instrumentu inguru izango
dira ikusgai Aranburun.

Aurtengo berrikuntzak

Indiarekin elkartrukea «txo-
txongiloetatik haratago» joa-
tea nahi dute antolatzaileek.
«Elkartruke gastronomikoa»

ZENBAIT DATU ▶

Konpainiak. 25 talde;
horietako 4 Euskal Herrikoak.
Lurraldeak. 11.
Ikuskizunak. 28 emanaldi
Tolosan; guztira, talde horiek
Gipuzkoan, Bizkaian eta
Nafarroan eskainiko dituzten
saioak kontuan hartuta, 181.

ere izango da aurtengoa: Titiri-
jai-k irauten duen bitartean, In-
diako jakiak dastatzeko aukera
izango da, Fronton jatetxean;
Bartzelonatik sukaldari indiar
bat etorriko da espreski hango
plater tipikoak prestatzera.

Dena den, ez da aurtengo
berrikuntza bakarra. Nafarroa
etorbideko dendarri gehieni
eta Igarondo merkatari elkar-
teari esker, Txotxongilo kalea
izango du Tolosak. Nafarroa
etorbidera sartzean, ipuin eta
kondairazko pertsonaia artean
paseatzeko aukera izango dute
ibiltariak. Kaleko erakusketa
honekin Titirijaiak Bihar Txo-
txongilo Taldea omendu nahi
du, bere 25. urteurrenagatik.

«Tolosa herri irekia eta abe-
gitsua dela erakutsiko dugu
beste behin. Herri bizia da gu-
rea. Kulturen topagune izango
da egunotan. Eta ohore handia
da guretzab». Hala amaitu zuen
aurkezpena Jokin Bildarratz
Tolosako alkateak.

EGITARAUA ▶ EGUNEZ EGUN

GAUR, LARUNBATA

17:30, Kultur Etxea.
Harleking Babszinhaz
(Hungaria): *Craking, clapping.*
20:00, Beotibar.
Pitara Putli (India):
Swaagat-Festa Rajhastanen.

BIHAR, IGANDEA

12:00, Kultur Etxea.
Brakabrik Theatre (Frantzia):
Burbuilatik.
17:30 eta 19:30, Kasinoa.
Natana Kairali (India):
Dakshayagan Pavakathakali.
17:30 eta 20:00, Beotibar.
Pitara Putli (India):
Swaagat-Festa Rajhastanen.
18:00, Gorosabel.
Mano y contramano (Mexiko):
Titirijugando.

ETZI, ASTELEHENA

10:30, 15:00 eta 18:30,
Kultur Etxea. La Gaviota
(Espainia): *El gato con botas.*
10:30 eta 15:00, Beotibar.
Pitara Putli (India):
Swaagat-Festa Rajhastanen.
11:00 eta 15:00, Kasinoa.
Fernan Cardama (Espainia):
La vuelta al mundo en 80 dias.
11:00, 15:00 eta 17:30,

Leidor. El Retablo (Espainia):
*Sueño de una noche de
verano.*
12:00 eta 15:00, Gorosabel.
Dar Dar (Euskal Herria):
Egizu lo, Tartalo.
**20:30 eta 22:30, Kasinoa
(helduak).** Aakar Puppet
Theater (India): *Amar Singh
Rathod.*

ASTEARTEA, HILAREN 30A

10:30, 15:00 eta 18:30,
Kultur Etxea. Atelier 313
(Bulgaria): *Peter Pan.*
10:30 eta 15:00, Beotibar.
Pitara Putli (India):
Swaagat-Festa Rajhastanen.
11:00 eta 15:00, Kasinoa.
Brakabrik Theatre (Frantzia):
Burbuilatik.
11:00, 15:00 eta 17:30,
Leidor. Tanti Cosi Progetti
(Italia): *Txanogorritxu.*
12:00 eta 15:00, Gorosabel.
Harleking Babszinhaz
(Hungaria): *Craking, clapping.*
**20:30 eta 22:30, Kasinoa
(helduak).** Fernan Cardama
(Espainia): *La vuelta al mundo
en 80 dias.*

ASTEAZKENA, ABENDUAK 1

10:30, 15:00 eta 18:30,

Kultur Etxea. Kazaliste Licem
U Lice (Kroazia): *Pulgarcita.*
10:30 eta 15:00, Beotibar.
Pitara Putli (India):
Swaagat-Festa Rajhastanen.
11:00 eta 15:00, Kasinoa.
Asvinenea (Euskal Herria):
Bi eta zazpi, edo zazpi eta bi.
11:00, 15:00 eta 17:30,
Leidor. Marionetas de la
esquina (Mexico):
Dibujame una vaca.
12:00 eta 15:00, Gorosabel.
Poppenteater de Spiegel
(Belgika): *Gran pepona,
pequeña pepona.*
**20:30 eta 22:30, Kasinoa
(helduak).** Mano y
contramano (Mexiko):
Ubu reciclado.

OSTEGUNA, ABENDUAK 2

10:30, 15:00 eta 18:30,
Kultur Etxea. El Retal
(Espainia): *La niña y la luna.*
10:30 eta 15:00, Beotibar.
Pitara Putli (India):
Swaagat-Festa Rajhastanen.
11:00 eta 15:00, Kasinoa.
Damiet van Dalsum
(Herbehereak):
Bubbel-babbel-bos.
11:00, 15:00 eta 17:30,
Leidor. Aakar Puppet Theater
(India): *Dhola Maru.*

12:00 eta 15:00, Gorosabel.
Poppenteater de Spiegel
(Belgika): *Gran pepona,
pequeña pepona.*
**20:30 eta 22:30, Kasinoa
(helduak).** Natana Kairali
(India): *Dakshayagan
Pavakathakali.*

OSTIRALA, ABENDUAK 3

10:30, 15:00 eta 18:30,
Kultur Etxea. Titeres Maria
Parrato (Espainia): *No te
asuste mi nombre.*
10:30 eta 15:00, Beotibar.
Pitara Putli (India):
Swaagat-Festa Rajhastanen.
11:00 eta 15:00, Kasinoa.
Chaya Nataka Brundam (India):
Sundara Kandam.
11:00, 15:00 eta 17:30,
Leidor. Bihar Txotxongilo
Taldea (Euskal Herria):
Ibaixtu: Burdinaren lamia.
12:00 eta 15:00, Gorosabel.
Mari Teatroa (Euskal Herria):
Beldurraren apoa.
**20:30 eta 22:30, Kasinoa
(helduak).** Bambalina Titteltes
(Herrialde Katalanak):
La sonrisa de Lorca.

LARUNBATA, ABENDUAK 4

12:00, 18:00, Kultur Etxea.

Chaya Nataka Brundam (India):
Sundara Kandam.
17:30 eta 20:00, Beotibar.
Pitara Putli (India):
Swaagat-Festa Rajhastanen.
17:00 eta 19:00, Leidor.
Teatro de la Luna (Espainia):
Ferdinando.

IGANDEA, ABENDUAK 5

12:00, Kultur Etxea. Damiet
van Dalsum (Herbehereak):
Bubbel-babbel-bos.
17:30 eta 20:00, Beotibar.
Pitara Putli (India):
Swaagat-Festa Rajhastanen.
**19:30 eta 22:30, Kultur
Etxea.** Asvinenea (Euskal
Herria): *Farsantres.*
17:00 eta 19:00, Leidor.
Titiriteros de Binefar (Espainia):
Retablo de Navidad.

GAURTIK ABENDUAREN 5ERA

**Erakusketa, Aranburu
Jauregian.** *Putrul Yatra,*
Indiara leihoa erakusketa.
Gaur, 19:30etik 21:00etara
ikusgai; bihar, abenduaren 4an
eta 5ean, 12:00etatik
14:00etara eta 17:00etatik
20:00etara; eta hilaren 29tik
abenduaren 3ra, 17:00etatik
20:00etara.



Eraso sexisten kontra, emakumeen bilkura

GIZARTEA ▶ Herenegun gauean, Bilgune Feministak deituta, genero indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna zela eta, hainbat emakume elkartu zen Trianguloan protestan.

Emakumeen aurkako indarkeriari aurre hartu leloa zeraman pankarta erakutsi zuten. Aurten Euskal Herrian bost emakume erahil eta ehunka jipoiu dituztela eta urtero sexu indarkeriaren biktimen kopurua handitzen doala salatu zuten. J. SAIZAR



Euskal presoaren aldeko hileroko kontzentrazioa

GIZARTEA ▶ Hilero azken ostiraletan egiten *Euskal presoak Euskal Herrira* kontzentrazioa burutu zuten Tolosaldeko hainbat herritan. Argazkian, Tolosako Trianguloan egindako ekitaldia. Bestalde, pixka bat beranduago —erredakzioa itxi ondoren— azken atxiloketen aurrean protesta azaltzeko deitutako Borroka Eguneko manifestazioa zen egitekoa Trianguloan bertan. Goizean ikastetxeetan geldialdiak egin zituzten. L. MONTES

MUSIKA ▶

Herriko sei musika talde Santa Zeziliaren omenez

Bihar 12:00etan izango da Leidorren; Bandak Civico eta Bueno omenduko ditu

JOXEMI SAIZAR

Urtero bezala, Tolosako Musika Bandak antolatuta, herriko musika taldeek Santa Zeziliaren omenezko kontzertu berezia eskainiko dute bihar 12:00etan Leidor zineman.

«Herriko musika taldeak elkartzeko eta urtean zehar egindako lanaren zati bat erakusteko egun aproposa iruditzen zaigu. Horregatik urtero talde guztiei gonbidapena luzatzen diegu. Aurten sei elkartuko gara, Tolosako Orfeoak ezin duelako», adierazi diote HITZARI antolatzaileek.

Sei talde horien artea bi akordeoi orkestra, abesbatza bat, txistulari talde bat, dultzaina talde bat eta musika banda bat daude. Bakoitzak bizpahiru obra eskainiko ditu.

Udal Musika Eskolako Giroarte dultzaina taldeak hasiko du emanaldia, Iñaki Salvadorren zuzendaritzapean. *Ariñ ariñ* eta *Fandangoa* interpretatuko dute, laguntzaile gisa Beñat Luluaga trikitilaria eta Mikel Atxega baxujolea dituztela.

Maiatz akordeoi orkestrak *Baldorba* eta *Baga biga higa*



Tolosako Musika Bandak antolatzen du urtero kontzertu hau. HITZA

eskainiko dute, Maribi Urruzola zuzendari dutela.

Jarraian Hodeiertz abesbatzak hiru obra abestuko ditu Enrique Azurzaren zuzendaritzapean: *Sommarsam*, *Neskatx'ederra* eta *Biolin musikaz*.

Laugarren taldea eszenatorkian Udal Txistulari Banda izango da. *Betin nigan getu*, *Kontrapasa* eta *Aintzinako dantzak* eskainiko dituzte. Iñaki Letamendiak zuzenduko du.

Isidro Larrañaga akordeoi orkestrak *Sinfonia in B-Dor* eta

Jig joko du, Isidro Larrañaga Morenoren batutapean.

Ondoren, eta kontzertua amaitzeko, Tolosako Musika Bandaren saioa izango da. Baina hasi aurretik, bi taldekideto losar omenduko ditu: Rafael Civico eta Juan Mari Bueno. Civicok tronpeteta eta tuba jotzen du. 60 urte ditu eta 24 urte zituenetik da bandako kidea. Eduardo Mokoroa, Azurza, Santi Balza, Gabriel Urrea, Ocon eta Miguel Angel Moreno izan ditu irakasle.

Buenok 68 urte ditu eta perkusioko soinu tresnak jotzen du. 23 urterekin Udal Orkestran sartu zen eta 38rekin udal bandan. Manuel Balmaseda, Ceferino Rico, Pedro Mozo izan zituen irakasle. Biek herriko txaranga askotan jo izan dute eta gaur egun Alcoyano txaranga jotzen dute.

Musika Bandak *Charles Chaplin* obra eskainiko du Luis Mari Gartzia Artetxeren zuzendaritzapean.

Kontzertuko partaite batzuk ondoren bazkaria izango dute, Santa Zeziliaren omenezko ekitaldiak ondo bukatzeko. Asteazkenean zehar hainbat musika saio eta ekitaldi burutu dituzte eskualdeko talde hauek eta beste batzuk.

PARTAIDEAK ▶

- ▶ Udal Musika Eskolako Giroarte dultzaina taldea.
- ▶ Maiatz akordeoi orkestra.
- ▶ Hodeiertz abesbatza.
- ▶ Udal Txistulari Banda.
- ▶ Isidro Larrañaga akordeoi orkestra.
- ▶ Tolosako Musika Banda.

GIZARTEA ▶

Lau atxilotu jostailudenda batean lapurtzeagatik

Sei auto teledirigitu lapurtu zituzten; lau atxilotuak Andoaingoak dira

ERREDAKZIOA

Atzo goizaldean Ertzaintzak 17 eta 21 urte arteko lau gazte atxilotu zituen Andoain Tolosako jostailudenda batean lapurtzeagatik eta kalteak sortzeagatik.

Ertzaintzak egindako azterketaren arabera, estolderiako tapa batekin erakuslehoia hautsi eta 1.800 euro balio zuten eta gasolinaz funtzionatzen duten sei auto teledirigitu lapurtu zituzten. Gainera erakuslehoian zeuden beste artikulu batzuetan kalteak eragin zituzten egileek.

Gertakariak atzo goizaldeko 00:30ean izan ziren, gutxi gora behera, Tolosaren erdialdean dagoen jostailudenda batean. Partikular batzuek Ertzaintzari lapurretaren berri eman zitoten. Egileek auto batean egin zuten ihes.

Lekukoek esandako datuekin bat zetorren Opel Vectra auto batekin gurutzatu zen Ertzaintzaren patruilla bat, N-1 errepidean. Irungo norabidean. Ezin zutenez harrrapatu, inguruko patruillei abisua pasatu eta minutu batzuk geroago beste patruilla batek autoa Andoainen topatu zuen eta barruan zeuden lau gazteak atxilotu zituen, lapurretaren egileak izatea leporatuz.

Atxilotutako lau gazteak Andoaingoak dira, 17 eta 21 urte dituzte eta —adin txikiak izan ezik — aurrekari deliktiboak dituzte, Ertzaintzak jakinarazi duenez.

ARAMBURU

Salgai (Irura), 100m²-ko pisua Nagusia kalean, Bajera aukeran.

Salgai (Tolosa), Pisua handia Gorosabel 40ean.

Salgai (Tolosa), Pisua altua igogailuarekin Nafarroa Etorbidean, 49.000.000 pta.

Salgai (Tolosa), Pisua igogailuarekin Larramendi kalean, 30.000.000 pta.

Salgai (Tolosa), Lokal komertziala San Frantzisko pasealekuan 85m².

Alokatzeko (Tolosa), Lokal komertziala Errementari kalean, Pizzeria edo bokokategia jartzeko egokia.

Alokatzeko (Tolosa), Bulegoa Korreo kalean 1, pisua igogailuarekin

Alokatzeko (Tolosa), Garajeak alkatzen dira Tolosako Iku ezberdinetan.

943 65 17 13 / 677 46 09 16

IKAZTEGIETA ▶ KULTUR ASTEA

Hitzaldi umoretsua eta antzerkia, Kultur Astea amaitzeko

Igandean amaituko da aste bete iraun duen Kultur Astea; egun horretarako haur antzerkia antolatu dute

OLAIA ESKITXABEL

Pasa den igandean, azaroaren 21ean, eman zioten hasiera Kultur Asteari. Jarraian, eta, egunero, ekitaldi desberdinak egon dira: hitzaldia, antzerkia, ipuin kontaketa...

Kultur Asteko ekitaldiak Udala, UEMA eta Galtzaundi Euskara Elkartearen laguntzarekin antolatu dira

Bihar, igandea, amaituko da Kultur Astea; baina aurretik, beste bi emanaldi izango dira.

Gaur, Kike Amonarrirek eta Asisko Urmenetak *Euskara lardaskatzeko manerak* hitzaldi umoretsua eskainiko dute. Ordu eta erdiz liburutegira gerturazten direnen barrea eragiten saiatuko dira, besteak bes-

te, euskal kanten eduki sexualaren edota segapopotik bidal daitezkeen mezuen inguruko gaiak jorratuz.

Integrazioa lantzen

Kultur Astearen azken ekitaldia Zenbat Gara elkartearen inguruan sortutako Ane Monna, Osokola eta Karramarroi markotak konpainiaren eskutik iritsiko da. *Hamaika koloretan dantzan* ikuskizuna eskainiko du: «Antzezenak helburu pedagogikoa du eta arrazakeriaren aurkako eta integrazioaren aldeko mezu argia zabaltzea du jomuga», azaldu du Koldo Zelestinok, konpainiako zuzendariak.

Abestiak eta dantzak uzta-

EGITARAUA ▶

GAUR

20:00. *Euskara lardaskatzeko manerak* hitzaldia liburutegian.

BIHAR

17:00. *Hamaika koloretan dantzan* antzerki emanaldia. 17:00etan gimnasioan.

tuz etorkinei buruzko ikuspuntua azalduko eta landuko dute hainbat pertsonaiek. Guztira, hamasei abesti eskainiko dituzte. Haurrei zuzendutako emanaldia, 17:00etan izango da gimnasioan.

VILLABONA ▶

Oindolar tunela gaur irekiko dute, lanak bukatuta

Hilabete baino gehiago itxia egon ondoren, gaur zabalduko dute Oindolar tunela A-15 autobidean, Donostiako norabidean. Egokitze eta sendotze lanak burutu dituzte epe honetan Foru Aldundiak aginduta. Bitarte honetan, Iruñetik Donostiara zihuan trafikoa kontrako bidetik desbideratu dute, 1,4 kilometro bidean, beste norabidekoetatik bereizita.

ALEGIA ▶

Hamaikagarren irteera, igandean

Legorretan hasi eta Alegia bitarteko ibilaldia proposatu du Alegiako Mendi Asanbladak biharko. Urteko hamaikagarren irteera da honakoa. 08:00etan Tontokalen bildu eta 08:14eko tren hartuko dute; trenaz, Legorretaraino joan eta ondoren, Altzagaratte, Orendain eta Ikaztegieta zeharkatuko dituzte. Alegian amaituko dute, esan bezala, ibilaldia. 14:00etan Intxurre elkartean babarrun jatea egingo dute; ondoren, aurtengo irteeretan ateratako argazkien emanaldia izango da.

TOLOSA ▶

Bilera deitu du AHT Gelditu! Elkarlanak

Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlana taldeak, eskualdeko erakunde, gizarte eragile eta herritarrei etzi, astelehena, egingo den batzarrera etortzeko deia luzatu nahi die. Bertan, AHT egitasmoaren aurka azken asteetan antolatutako ekimenen berri ematearekin batera, aurrera begirako urratsak zehaztuko dituzte. Bilera, Kultur Etxean izango da 20:00etan.

AMEZKETA ▶

Aurrera begirako plangintza zehazteko herri bilera deitu du Ametzak taldeak

Ostegunean, abenduaren 2an, izango da bilera, gela balioanitzean

O.ESKITXABEL

«Iazko udal hauteskundeetan Ametzak taldea izan zen bozka gehien jaso zuen udal-taldea baina oraindik ez du Udalean erabakiak hartzeko aukerarik», azaldu dute Ametzak taldeko kideak. Eta, «herritarrek erabaki zutena errespetatu eta

arazo horri irtenbidea bilatu nahian aurrerapausoak eman direla ikusten duten arren, «oraindik ere aurretik bide luzea dutela azaldu dute. Hori guztia kontutan izanda, hauteskundeetatik gaur egun arte gertatutakoa, egungo egoera eta batez ere aurrerantzean zer eta nola egin eztabaidatzeko

herri bilera luzatu du Ametzak taldeak datorren ostegunerako, abenduaren 2rako. Bertan, «herritar guztien parte-hartzea» eskatu dute, horrela, «denen artean egoeraren azterketa egin eta aurrera begira plangintza bat osatzeko asmoz».

Bilkura, 20:30 ean izango da, gela balioanitzean.

TOLOSA ▶

Gazte Topagunea, hirugarren solairuan

Txotxongiloen erakusketa Gazte Topagunearen txokora jarri dutela eta, asteburu honetan zein hurrengoan (abenduaren 4-5) Gazte Topagunea Kultur Etxeko hirugarren solairuan izango dela jakinarazi dute. Topagunearen ordutegia ohikoa izango dela adierazi dute, bestalde, Gazte Topaguneko ardura-dunek, 16:30etik 20:30era bitartekoa, alegia.

ORENDAIN ▶

Iñaki Perurena eta Nabarraldeko kideen hitzaldia

Eltxo elkartean, Iñaki Perurena harrijasotzaile ezagunak eta Nabarralde elkarteko kideak herri kirolen inguruko solasaldia emango dute bihar, igandea. *50 altzaldi, 50 galdera* deritzen hitzaldira gerturazten direnek galderak prestatuta eramatea eskatu du Kultur Batzordeak. Hamaiketako ere izango da. Hitzaldia, meza ondorenean izango da.



Mendi irteerarako batean. HITZA

HITZA **txokoa** ^{lagunen}

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

▶ HITZARI 42 euroko diru laguntza ematen dioten harpidedunek HITZA egunero jasotzeaz gain **ABANTAILA EZBERDINAK** izango dituzte; harpidedunen txartela izango dute eta, besteak beste, HITZAK egiten dituen zozketetan parte hartzeko aukera izango dute.

▶ HITZAREN laguntzaile izan nahi baduzu, deitu **943 30 43 46** telefono zenbakira.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

ZIZURKIL ▶ MUSIKA

Musika beltzaz gozatzeko jaia gaur gauean

Hiru emanaldi egingo dira Aurrera, Atxulondo eta Egarrri tabernetan

IMANOL GARCIA

Zizurkilen ez ez eta festa zikloaren baitan gaur gauean musika beltzaren jaia izango da herriko tabernetan. Aurreko urteetan blues gauak izandako arrakastaren ondotik, musika beltzaren txanda izango da. Herriko tabernarien eskutik, funky, hip-hop edota reggae doinuak entzun ahal izango dira dohanik.

Aurrera, Egarrri eta Atxulondo tabernetan banatuko dira hiru talde entzutetsuak. Ortophonk gasteiztarrak batetik, Juan Profundo kataluniarra bestetik; eta azkenik, Kiki Sound System-a, Kamikaze (CPV), Mr. Rango (CPV) eta Chulito Camacho-ren eskutik.

Festa 23:30ean hasiko da eta tabernaz taberna goizaldera arte ibiltzeko aukera izango da. **Kiki Sound System (Reagge-Ragga)**, Aurrera tabernan ari-

ko dira. Kamikaze madrildarra da Sound System honen burua. Bera da Club de los Poetas Violentos taldearen sortzaileetako bat. Kiki Sound System proiektuaren bueltan dabil orain madrildarra eta oraingo honetan Mr. Rango eta Chulito Camacho ondoan dituela agertuko da taula gainean, reggae-ragga doinuak zabalduz. Berak ekoiztu du estatuan egin den lehen *riddim* diskoa.

Ortophonk (Funky). Atxulondo tabernan izango dira. Doinu alaiak, hirurogeita hamarrek hamarkadako banda handien kutsua eta dantza usaina dakartzan Ortophonk talde gasteiztarrak. Funk eta soinu latin-darren artean sentitzen da eroso taldea. Ortophonk-en esanetan «gure kontzertu batera ez joateak giharrak geldiaraztea dakar, eta kontzertuan berriz aldaka hezurra haustea».



Ortophonk talde gasteiztarrak *funky* musika ekarriko du. HITZA



Juan Profundo. HITZA

Non Juan Profundo (Hip hop).

Egarrri tabernan izango da. Rubitrik (Bartzelona) dator eta kontzertu hau bere lehenengo izango da Euskal Herrian. MC eta ekoizle honek Payo Malorekin edota Pachecos-ekin egin du lan. Horretaz gain, Ari abeslariaren bigarren diskoan *En mi salsa* kantua ekoiztu zuen. Eskuartearen dakar 2002an kaleratu zuen diskoa. Orain, bere bigarren lana prestatzen ari da.

EGITARAUA ▶

23:30tik 00:30era. Aurrera tabernan, Kiki Sound System.
00:30tik 02:00etara. Atxulondo tabernan, Ortophonk taldea.
02:00etatik 3:30era. Egarrri tabernan, Juan Profundo.
03:30etik aurrera. Aurrera tabernan, Kiki Sound System.

IRURA ▶ GIZARTEA

Jubilatuak irteera ederra egin zuten

Egun zoragarria pasa zuten Irurako jubilatuak aurreko astean. Eguraldia primerakoa izan zuten. Azkenean 32 pertsona elkartu ziren eta, beti bezela, gehienak emakumeak izan ziren: 24 emakume eta 8 gizonezko. Irunera joan ziren lehenengo eta han bi taldetan banatu ziren: talde bat tximeleten erakusketa ikustera joan zen eta bestea Tren Berdean ibiltzera. Trenean 15 minutu edo ibili ziren eta Meaki auzoko burnia sortzeko labeak ikusi zituzten. Bestalde, Sarria kaleko erakusketa interesgarrian, 3.000 tximeleta inguru ikusteko aukera izan zuten eta intsektu honi buruzko bideoa ere bai. Eguerdiko partean Arano jatetxerako bapoz bazkaldu ondoren Getariarako bidea hartu zuten. Han Balentziaga museoa ikusi zuten eta ondoren herriko jubilatuaren elkartearen kafea hartu eta Irurako bueltatu ziren.



Jubilatuak Meaki auzora egindako bisitan. HITZA

VILLABONA ▶

Gaztetxoentzat kross herrikoia Zunbeltzen eskutik

Villabonako Zunbeltz elkar-teak abenduaren 8an 25. urtebetetzea egingo du. Hori dela eta, ekitaldi ezberdinak antolatu ditu. Gaur bertan, hamalau urtetik beherakoentzat kros herrikoia antolatu du. Lasterketa arratsaldeko 16:00etan hasiko da. Proba amaitu ondoren, parte-hartzaileei txokolate beroa banatuko zaie. 17:00etan, bazkideen arteko mus txapelketari hasiera emango zaio. Eta karta lehiaketaren ondoren, bertso afari sorpresa egingo da. Afaria gaueko 21:00etan hasiko da.

OSTATU JATETXEA (ALKIZA)

IREKITA EGONDO DA DATORREN ASTEARTETIK AUERRERA

VILLABONA ▶ HITZALDIA

Elkarriren hitzaldia Gurea aretoan

Elkarririk, elkarrizketa eta akordioaren aldeko gizarte mugimenduak, hitzaldi bat antolatu du datorren astearterako, azaroaren 30a, 20:00etan Gurea aretoko erakusgelan. Bertan, Elkarririk Bake Konferentzia ekimenaren inguruan gizarte, politika eta nazioarte mailan garatzen ari diren lanen xehetasun guztiak emango ditu. Bestalde, egun bizi dugun egoera politikoaren giltzak atzematen ahaleginduko gara. Azken egunotan, Elkarririk aukera politiko guztiak legalitatearen barruan sartzea eskatu zuen Espainiako Kongresuan, 122.513 sinaduren babesarekin. Sinadura bilketa pasatu den udaberrian egin zen eta sinatutako dokumentuan lau puntu agertzen ziren: elkarrizketa mahai baten eskaera; indarkeriaren amaiera, aukera politiko guztiak legalitatearen barruan sartzea eta gizatiartzearekiko Europatik ekarpena.

"GURE BASERRITARREN PRODUKTUEZ OSATURIKO SASKIAK AUKERAN"

LUR-LAN Baserritar Elkarte
Hernandorena kalea, 11 • 20159 ZIZURKIL

Tel.: 943 69 20 54 • Faxa: 943 69 44 83
Posta elektronikoa: lurian@euskalnet.net

BERROBI ▶

Gaztain jatea izango da bihar udaletxean

Asteartean San Andres herriko patroia dela eta gaztain jatea antolatu du Berrobiko Udalak. Sagardoaz lagunduriko gaztain jatea 18:30ean hasiko da udaletxeko arku-petan. Bestalde, asteartean hainbat ekitaldi antolatu dituzte haurrentzat. 17:10ean askaria egongo da, 17:45etik 18:15era buru haundiak eta 18:15ean ipuin kontalaria arituko da liburutegian.

BERASTEGI ▶

Podologoa egongo da bihar Gaztainondon

Bihar, podologoa egongo da Gaztainondo Jubilatu elkar-tean. Podologoarekin txanda hartu nahi duenak, aurretik izena eman beharko du elkar-tean bertan. Elkarteko ordutegia arratsaldeko lauretan hasi eta zazpiretan amaitzen da. Telefonoz izena eman nahi duenak, berriz, honako bi zenbakietara dei dezake: 943 68 32 64 edo 943 68 32 02.

IBARRA ▶

'Titirijugando' saioa ikusgai Kultur Etxean

Ibarrako Udalak txotxongilo saioa antolatu du bihar eguerdirako. Mano y Contramano taldea izango da *Titirijugando* izeneko saioa eskainiko duena. Txotxongilo saioa Benito Izagirre kultur etxean izango da eguerdiko hamabietan. Emanaldia lau eta hamabi urte bitarteko haurrei dago zuzendua, baina nahi izanez gero edonor hurbil daiteke saiora.

BERASTEGI ▶

Guraso Eskolaren bigarren saioa astelehenean

Berastegiko Guraso Elkarteak, Guraso Eskolako bigarren saioa antolatu du datorren astelehenerako. Jose Francisco Amiama pedagoga da saio hauek ematen dituenak. Ordutegia, berriz, 21:00etatik 22:30era izango da. Momentuz 15 lagun dira izena eman dutenak, baina edonork parte hartu nahi badu, izen ematea zabalik da oraindik.

IBARRA ▶

San Bartolome jaietako argazki erakusketa

Ibarrako Udakultura eta Gazteria Sailak, aurtengo San Bartolome jaietako argazki erakusketa antolatu du. Azaroaren 2tik abenduaren 3a bitarte ikusi ahal izango dira astelehentik ostiralera 10:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 21:00etara, Ibarrako Benito Izagirre kultur elkar-tean. Beraz, jaietako irudiak ikusi nahi dituenak hurbil dadila Kultur Etxera

IBARRA ▶ GIZARTEA

Astelehenean hasiko da Merkatu Txikirako gauzen bilketa

Abenduaren 11tik 19ra egongo da zabalik eta Ekuador, Honduras eta Indiara bidaliko da bertan bildutako dirua



Iaz Ibarrako parrokiako lokalean Hirugarren Munduaren alde egin zen merkatu bixiaren irudia. HITZA

MADDI SOROA

Urtero bezala, aurtengoan ere Merkatu Txikia antolatu du Ibarrako San Bartolome Misio Taldeak. Bosgarren urtea du aurtengo eta urtero bezala,

India, Ekuador eta Honduras izango dira Merkatu Txikiarekin lortuko den dirua bideratuko dituzten Estatuak. Estatu hauetan, proiektu bana garatu nahi du Misio Elkarteak. Gogoratu, ordea, Ibarrako Udalak

ere 3.500 euro bideratzen dituela urtero proiektu bakoitzearako. Beraz, urtero estatu berdinak lantzen dira, baina, proiektu ezberdinekin.

Aurtengo proiektuak honako hauek izango dira. Batetik, Indiako Gujerat probintziako Gogha herrian eskolaurrea egin nahi da. Bestetik, Ekuadorreko Santa Rosako auzo bakoitzean farmazi komunitarioa sortu nahi dute. Azkenik, Hondurasean egin nahi da hirugarren eta azken proiektua; izan ere, Tegucigalpan herriko be-

hartsuentzako etxeak egin nahi baitira.

Esan bezala, proiektu hauetan parte hartzeko Merkatu Txikia antolatu du San Bartolome Misio Taldeak. Merkatua parrokiako lokalean izango da urtero bezala. Abenduaren 12an zabalduko da eta 19a bitarte egongo da irekita. Ordutegiari dagokionez, berriz, arratsaldeko bostetatik aurrera egongo da zabalik. Pitxiak, bigarren eskuko arropa, jostailuak eta beste zenbait gauzetaz gain, India, Honduras eta Ekuadorreko produktuak egongo dira salgai.

San Bartolome Elkarteak, Merkatu Txikira hurbildu eta zer edo zer erosteko deia egiten diete eskualdeko herritarrei, izan ere, Xabier Aierza elkarteko kideak esan bezala «zenbat eta jende gehiagok parte hartu erosketetan, orduan eta diru gehiago bidaliko da proiektuak garatzeko». Aurreko esperientziei dagokionez, berriz, «oso gustura gaude, jende askok hartzen baitu parte. Gauza asko ekartzen ditu jendeak, eta saldu ere asko saltzen da», azaldu du Aierzak.

Merkatu Txikian saltzen ez denarekin, berriz, Laskorain Ikastolari ematen zaio zati bat; izan ere, urtero egiten baitute Merkatu Txikia horiek ere. Beste zati bat, berriz, Amarozeran eramaten dute, han ere Hego Ameriketako proiektuei bideraturik dagoen Merkatu Txikia egiten baitute urtero otsaillean.

Ibarrako San Bartolome Misio Taldeak, beste hainbat ekintza ere burutzen ditu urtean zehar. Horietako bat, gazteei misio zerbitzuak eskaintzea da. Aurtengo udaran esaterako, Ibarrako bost gazte egon dira Calcuta, Bombay eta Ekuadorren elkarlanean. Egun hauetan ere, Ibarrako gazte bat Honduraseara joateko azken prestakuntzetan dabilza.

IBARRA ▶ KIROLA

Ibarrak ez du partidarik jokatu biko bihar

Peña Logroño zuen aurkaria baina, arazo ekonomikoengatik txapelketa utzi du

M. SOROA

Ibarrak Logroñoeko Peña Logroñoaren aurka jokatu behar zuen asteburu honetan. Talde horrek, ordea, arazo ekonomikoak direla eta, liga hasi aurretik txapelketa uztea erabaki zuen. Hori dela eta, Ibarrak ez du jokatu eta atsedena izango du bihar. Taldeak jakinarazi duenez, «ez dago gaizki atsedena izatea, baldin eta akatsak zuzendu eta lehiaketari pultsua hartzeko balio izango badu».

Une hauetan, jaitziera postuetan dago Ibarrako taldea. «baina klubaren barnean konfiantza nabari da, izan ere, egunez egun hobetzen ari garela nabari baita. Cesar Roca jokalariekin egiten ari den lan guztiak emaitza positiboak ekarriko dituelakoan gaude; modu horretan, sailkapen orokorrean gorago egotea suposatuko duela», adierazi du taldeko ordezkariak.

Jubenilen partida zaila

Taldeko ordezkariak esandakoaren arabera, «denboraldiko partidarik zailenariko» jokatu dute asteburu honetan Lauburuko jubeniekin. Aurreko denboraldiko txapelketa izan zen GSI Bilbo izango du aurkaria. Egun, sailkapen orokorreko hirugarren postua betetzen du.

**NATURAL -
NATURALAK**



- Era naturalean eginak
- Gaztak, yogurtak, txorizoak urdaiazpikoak, odolkiak eta beste hainbat produktu.

Mahala Baserrria - 20491 LEABURU • Tel.-Faxa: 943 673 499 • Tel. Mug.: 689 805 633

LEITZA ▶ GIZARTEA

Kontseiluak, Igor Astibiaren errugabetasuna defendatu du

Agerraldian, bere gurasoek bizitu dutena kontatu dute eta manipulazioa salatuz

JAIONE ASTIBIA

Xabier Mendiguren Kontseiluko idazkari nagusiak atzo eguerdian eginiko prentsa agerraldian, Kontseiluko bertako langile den Igor Astibiaren atxiloketa eta kartzelaritzeak eta bitartean ez non zegoen, ez komisaldegian igaro dituen egunetan «zer egiten ari zitzazkion» ez jakiteak «kezka handia» eragin diela agertu zuen. Espetxera sartu izana, errugabetasunaren aurkako bidegabekeriatzat jo zuen gainera.

Xabier Mendigurenekin batera, bere esanetan (Igorrek jasan duena eta familiak bizitu duena lehen eskutik azaltzeko), Igor Astibiaren gurasoak ere han ziren agerraldian gonbidatu eta lekuko zuzen gisa. Bere aita Martin Mari Astibia hitz egin zuen gurasoen izenean eta horixe egin zuen: azaroaren 16eko goizaldeaz geroztik



Xabier Mendiguren eta Igor Astibiaren gurasoak. BERRIA

bizitu eta «jasanarazi» dietena kontatu.

«Hiru egun pasa genituen bere berririk gabe», adierazi zuen, inkomunikazio epeari zegokionez, eta bitartean, bereak inolako berririk ez zutela, lehendabiziko egunetik bertatik, bere semeari hainbat ko-

munikabide egin eta zabaldu-tako akusazio gogorak jasan-gaitzak izan zirela adierazi zuen: «Akusazio faltsu, oinarri-rik gabeko eta inolako zentzurik gabekoak izan behar izan ditugu egun hauetan guztietan», azaldu zuen, komunikabide horiek bere semeari heriotz

bat egotziz («egindako baieztapen doakoak») salatuz.

Audientziako kalabozotan, «zutik, erabat mahaiari begira, tentsio, zuri-zuri eginda» ikusi zuten Igor, beren semea. «Hitz gutxiarekin, oso motz» erantzuten ziotela beren galderei eta inkomunikazioaz «oso gogorra» izan zela adierazi zuela, «flexioak, kolpeak buruan eta hanketan aiatatu zituen», baina horren inguruan ez zuela hitzik egin nahi, «ez zuela oroitu nahi esan zigun» zioen. «Badakigu ez duzula ikustekorik baina bata ala bestea sartu behar dizugu» esaten omen zioten poliziek eta aukeratzeko», epe horretaz beren semeak esan dien pixka adieraziz.

Mendigurenek hartu zuen hitza berriz, oraingoan, bere lankidearen zuzentasuna adierazteko. Igor Astibiaren lan ibilbidea azaldu zuen, Kontseiluan egiten ari zen lana erakutsi eta goraiapatuz.

LEITZA ▶ KULTURA

Kantuzaleen finalera hiru leitzar, bi talde, iritsi dira

Birginia, Maddi eta Nereak, Bordatxon abestu behar dute gaur arratsaldean

J. ASTIBIA

Gaur arratsaldean, 17:00etatik aurrera egingen da, Nafarroako Kantu Txapelketako finala, Donostebeko Bordatxon. Bertan hiru leitzarrek parte hartuko dute: Maddi Olano eta Birginia Mariezkurrena bikotekako saillean eta Nerea Erbitik banaka.

Aurtengo final horretan, 19 parte-hartzaile izanen direla argitu zuten Kantuzale Elkarte-rik bertatik, hiru sailletan banatuta: taldeka, bikoteka ala banaka. Gaurko saioak ordea badu ezaugarri berezirik antolatzaileen ustetan. Nabarmendu zutenek, sekulan baino bakarlarri gehiago parte hartu dute sariketan eta finallean ere horren isladan nabaria izanen omen da, 19 parte-hartzailetatik, 11-a halaxe izanen direlarik. «Kantarien maila bikaina

den seinale da hau, bakarrik abesteko osatuak daudela eta kalitatekoak diren adierazle: jendaurrean bakarrik kantatzeko pausoa ematea ez da nolatanahiko urratsa», zioten.

Horrela, Nerea Erbitik Gariren *Bizitzak* abestia egingen du, bakarlarri gisa, Nerea Urbizu pianoan lagun duela. Eta Birginia eta Maddi bikoteak berriz, *Egun argian* abestuko dute, Garirena, Garikoitz Etxeberriaren eta Judith Mariezkurrenaren jenbea eta gitarra lagun dituztela.

Lehiaketa bukatuta, epaia-zen zain dauden bitartean, jada txapelketako presio horrenik gabe, kanturriak banatu eta beren zaletasunari atek irekitzeko asmoa dute beste behin ere, parte-hartzaile guztiek eta entzuleek elkarrekin kantatuz, antolatzaileen esanetan.

LEITZA ▶ INGURUMENA

30.410 kilo zabor handi jaso dira 3 hiruhilekotan

Uztailaz geroztik, horren zati bat birziklatua izan da Emauseko Traperoen eskutan

J. ASTIBIA

Leitzako zabor bilketa zerbitzuti helerazi diren datuen arabera, 2004. urteko lehendabiziko hiru hiruhileketotan, 30.410 kilogramo zabor handi jaso dituzte, Emauseko Traperok.

Urte amaierako balantzea egiteko oraindik ere datu batzuk falta diren arren, halako balantzeko bat egin dute. Lehendabiziko sei hilabetekoan, zabor handiak jaso, jasotzen zituzten, baina azaldu dutenez, «egoera oso txarrean, pilotata, euritan... egonda, ezin zitezkeen deustarako ere berreskuratu eta denak zaborretara joan ziren», argitu dute. 11.400 kilori buruzko datuak dira horiek.

Baina uztailaz geroztik, zabor handien bilketa etxetz

egiten hasi ziren, eta «traste handiak, etxeko tresnak, altzariak... zuzenean jasotzen hasi ginen, maila batean, beren birziklapena ahalbideratuz», argitu zuten. Horrela, esate baterako, hilabete horretan jaso zituten 5.840 kilo zabor handitatik, 1.000 birziklatu ahal izan zituzten, %17-a, baina iraillean zehar bildutako 5.600etik, 3.400, hots %61-a.

Egunez egun jende gehiagok erabiltzen du zerbitzu hau bestalde. Jakitera eman dutenez, nahikoa da 012 telefono zenbakira deitu eta zerbitzu honetaz galdetzea, berehalakoan Emausekoekin harremanetan jarri eta etxetik inora atera beharrik gabe, lekutu nahi den zabor handia eramateko hitzordua eginez eta ardua, eramatekoa eta tratatzeko, haien eskutan utziz.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoetalde. Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Berastegi-Elduain. 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarralde. Osasun etx.: 672411
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
▶ San Esteban: 00 80 00
▶ Gernikako arbola: 00 69 00
▶ Asunzio klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdia)
▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
▶ DYA: 67 25 36
▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
▶ Ertzaintza: 53 88 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930**GARRAIOAK**

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
▶ Taxia: 67 04 20
▶ Taxia (Leitza): 608 873016

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Tolosa. Nagusia 7 (Tolosa). 943 670 648
Plaza, M. Elbarren 36 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
tolosaldean_publi@tolosaldeko hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.
villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info

Anoetalde. 687 41 00 22

anoetaldea@tolosaldeko hitza.info

Ibarralde. 687 41 00 32.

ibarralde@tolosaldeko hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko hitza.info

Leitzalde. 687 41 01 18.

leitzalde@tolosaldeko hitza.info

iragarki laburrak ▶

LANA

Zaintzailea. Emakumea behar da bi haur zaintzeko. 615 72 73 84.

Sukaldaria. Sukaldaria behar da asteburuetan taberna lan egiteko. 943 691 933.

SALGAI

Taberna. Gazte taberna salgai Tolosan. 660 17 81 83.

Autoa. Ibiza GT TDI (110). 84.000 Km eta extrekin. 665 70 77 57.

Motorra. Honda NS1 80ko motoa. Tavi eskapearekin. 665 70 77 57.

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko azaroaren 27a, larunbata ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Eusko
Jaurjaritza
Kultura Salla



GAURKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena 14 hotzena 11

BIHARKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Berastegi. Podologoaren zerbitzua izango da Gaztainondo elkartearen 9:30etik 12:15era. Ordua hartzeko: 943 68 32 64 edo 943 68 32 02.

Ikaztegieta. *Euskara lardaskatzko manerak* hitzaldi umoretsua izango da Kike Amonarriz eta Asisko Urmenetaren eskutik, 20:00etan liburutegian

Larraul. Kultur Astea: mus txapelketa 15:30ean Katilulxulo elkartearen, Aiztondo argazki rallyko sari banaketa udaletxean 17:00etan eta erakusketa zabaltzea; eta herriko artisauen erakusketa ostatuan 17:00etatik 19:00etara.

Tolosa. Laskorain ikastolako ikasle ohien afaria eta festa 21:00etan Ferialekuan. Azken txartelak salgai daude Orbela tabernan.

Tolosa. Gazte Topagunea irekita egongo da gaur eta bihar 16:30etik 20:30era Kultur Etxean, baina 3. solairuan txoxngilo erakusketa dela eta.

KIROLA

GAUR

Areto futbola

▶ Hegoalde-Diamante Rioja (Emakumezkoen Ohorezko Maila. 19:00, Berazubi).

Esku pilota

Elkarteen Arteko Txapelketa
▶ Aurrera Saiaz-Zarautz 1 (Jubenilak. 10:00, Ibarra).
▶ Aurrera Saiaz-Anaitasuna (Nagusiak. 10:00, Ibarra).
▶ Aurrera-Saiaz-Murumendi (Nagusiak. 10:00, Ibarra).
▶ Zazpi-Iturri 1-Illunpe (Kadeteak. 16:00, Amezketak).
▶ Zazpi-Iturri-Bergara (Nagusiak. 16:00, Amezketak).
▶ Lizardi Igeldo 1-Kuku (Jubenilak. 17:00, Igeldo).
▶ Kuku 1-Behar Zana 1

(Infantilak. 17:30, Bidegoian).

▶ Kuku 2-Ernope (Infantilak. 17:30, Bidegoian).

▶ Aurrera-Saiaz 1-San Esteban 1 (Infantilak. 17:30, Bidegoian).

▶ Elordi-Herrigintza-San Esteban 2 (Infantilak. 17:30, Bidegoian).

▶ Mundarro-Elordi-Herrigintza (Jubenilak. 18:30, Astigarraga).

Futbol 7

▶ Ibarra G.A-Zibibo D.C. (1. Maila A. 18:00, Idiazabal).

▶ Lanbroa Dickens -Robers (1. Maila A. 19:00, Idiazabal).

Futbola

▶ Amaro-Z-Intxurre (Lurraldeko 2. Maila. 15:30, Elorri).

▶ Sanpedrotarra-Danena (Lurraldeko 2. Maila. 15:30, Trintxerpe).

▶ Amaro-Ostadar (Kadeteen 2. Maila. 11:30, Elorri).

▶ Amara Berri-Tolosa B (Lurraldeko 1. Maila. 15:30, Martutene).

▶ Tolosa-Oiartzun (Gorengo maila. 17:30, Berazubi).
▶ Zalla-Tolosa (Jubenilen Euskal Liga. 18:30, Zalla).

Zesta punta

Santa Luzia Txapelketa (17:00, Zumaia)

▶ Lope-Uranga/Mugerza-Odriozola (Alebinak, finala).

▶ Etxabe L.A.-Gabarain/Erauskin-Sanchez (Alebinak, 3. eta 4. postuak).

▶ Izagirre-Alberro/Manterola-Gurrutxaga (Infantilak, finala).

MUSIKA

Tolosa. Su ta Gar. 22:30ean Bonberenean.

Zizurkil. Musika beltza gaua: Aurreran Kiki Sound System; Atxulondon Ortophonk; eta Egarrin Juan Profundo.

TITIRIJA

Ibarra. Mano y Contramano taldearen *Titirijugando* saioa 12:00eta Ibarra Benito Izagirre kultur etxean.

Tolosa. Hungariako Harlekin Babisnaz taldearen *Craking, claping* Kultur Etxean 17:30ean; eta Indiako Pitara Putli taldearen *Swaajat Rajhastango festa* Beotibarren 20:00etan.

ZINEMA

Tolosa. *Di que si* filma. Leidor zineman 19:30ean eta 22:30ean.



Ez dira joan Espainiako Txapelketara

VILLABONA-ZIZURKIL ▶

Danena-Olaederrako pultsulariak ez dira elkartasunez Espainiako Txapelketara joan Valentziara, jaiotzez kubarra den Teddy Martinezi ofizialki parte hartzea ez diolako ziurtatu Federazioak. I.GARCIA

ZORION AGURRAK ▶

AGURRAK ▶

Urtebetetzea, jaiotzak, agurrak... hemen argitaratzeko etorri HITZAren egoitzara; ekarri argazkia



URTE ASKOAN

Iker eta Julia Esnaola (Belauntza). Gaur urtebete eta abenduaren 5ean 3 urte. Etxeko guztien partetik, muxu handi bana.



Patxi Ulanga Etxabe (I. urteurrena).

Egunsentia joan zaik eta/ iritsi duk ilunabarra ta bizitzatik heriotzara/ pasatu haiz ttrri-ttara. Duintasunez gainditu ere/ sufrimendu denen marra, horregatik duk hain dirdiratsu/ hik piztutako izarra, beti bizirik irauen duen/gure Patxi, senar, aita eta lagunaren garra.



ZORIONAK

Migel Mari Ugartemendia eta Bernardina Pellejero (Albiztur). 63 urte elkarrekin. Bada zerbait!

943 67 14 27



ile a p a i n d e g i a

Santa Klara S. Tolosa